

Urriaren 21ean mobilizatzeko deia egin dugu, palestinarren kontrako genozidioa gelditzeko

Palestinak elkartasuna eta konponbideak behar ditu, eta nazioarteko komunitateari genozidioa nahiz okupazioa amai dadin presio mekanismoak areagotzea dagokio. Ildo horretan, mobilizatzeko deia egin dugu, Gernika-Palestina herri ekimenarekin batera.

Horrela, Koldo Saenz Nazioarteko idazkaria eta Amanda Verrone eta Txente Rekondo idazkaritzako kideak izan dira Donostian, Aieteko Jauregian egindako agerraldian.

Urriaren 21ean goizez, mobilizazio sindikalak egingo ditugu, eta, arratsaldean, herriz herri elkarretaratzeak izango dira, Gernika-Palestina ekimenak deituta. Bietara batzeko deia egiten du LABek.

Gernika-Palestinaren [adierazpena](#)



2024-10-07, Donostia. Gernika Palestina ekimena bere ibilbidean parte hartu duten gizarte eragileekin bildu da, bozeramaileak Ibon Meñika eta Jone Bilbao, eta bertan, Nekane Balluerka, Fernando Barrena, Igor Otxoa, Arritxu Maraño...besteak beste 07-10-2024, San Sebastián. La iniciativa Gernika Palestina se reúne con los agentes sociales que han sido partícipes de su andadura, portavoces Ibon Meñika y Jone Bilbao, y presentes entre otros, Nekane Balluerka, Fernando Barrena, Igor Otxoa, Arritxu Maraño...